

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA ELGETAN

3.SAIOA

DATA: 2022-11-02
PARTAIDEAK: <ul style="list-style-type: none">- Herritarrak: 15 parte hartzaile- Udaletik: Ibai Larrañaga (Ingurumen zinegotzia)- Goiener: Leire Astigarraga- Emun: Ihabar Arriaran.

AURKEZPENA – AUTOKONTSUMO MODUAK ETA ENERGIA BERRIZTAGARRI EZBERDINAK

Goienerreko Leire Astigarragak autokontsumo indibidual eta kolektiboaren sistemak azaldu ditu eta horrekin batera energia berriztagarriak sortzeko dauden teknologia ezberdinak, eolikoa, hidraulikoa...

Ondoren galderak egiteko tartea zabaldu da zalantzak zituzten horientzat.

**Dokumentu honekin batera erabilitako aurkezpena.*

LANTALDEETAKO ARIKETA

Komunitatea eta komunikazioa lantaldea	Energia-proiektuen lantaldea	Lantalde juridiko-administratiboa
Komunitatearen zaintzaz eta harreman-sareak zabaltzeaz arduratuko den lantaldea izango da. Bertan zehaztuko dira komunitatearen funtzionamendua , harreman-sareak etengabe zabaltzen joateko bideak eta komunikazio-estrategia .	Proiektu desberdinak proposatu eta horien bideragarritasuna aztertzea izango da lantalde honen egiteko nagusia. Bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa, urgentzia eta eragin dezakeen ingurumen-inpaktua , zein inpaktu soziala izango dira, gutxienez, kontuan izan beharreko alderdiak. Ez dago metodologia bakar bat inpaktumota guztiak neurtzen dituen, kasuan kasu egokiena bilatu beharko da, baina, zehazki, inpaktu soziala aurreikusteko, baliagarria izango zaigu balioen markoa eraikita izatea.	Lantalde hau kooperatibaren eraketan landu beharreko alderdiez arduratuko da. Kooperatibaren estatutuak landu beharko dira eta bertan jasoko diren organo, bazkide-mota eta finantzazio-iturrien inguruko gogoetak egin. Horrek guztiak definituko du komunitatearen gobernantza-eredua bera. Komunitatearen bideragarritasun ekonomikoa ere landu beharko du, denboran zehar irautu dezan.

Lantalde ezberdinen helburuak azaldu eta 3 taldetan banatu ginen. Helburua lehenengo ekintza batzuk irudikatu eta taldeen antolamendu zehazten hastea zen.

Hemen taldeetan aipatutakoa:

Energia lantaldea:

- Goienerek Elgetan dauzkan bazkideen energia kontsumoen kurba orokorra aterako du frontoiko instalazioarekin konparatzeko.
- Goienerek biomasazko district heating edo bero sare ezberdinen adibideak aztertuko ditu eta Goienerreko aditua den kide batekin Elgetako aukeren inguruan hitz egingo du.
- Frontoiko instalazioaz gain beste aukera energetiko batzuk aztertuko dira

Komunikazio-komunitate lantaldea:

- Bergarako hasierako plangintza egoki ikusi da.
 - o *3 fase aurreikusi ditugu diseinatu beharko direnak:*
 - *Hemendik eta abendua bukaerara arte*
 - *Urtariletik kooperatibaren aurkezpena egin artekoa*
 - *Kooperatibaren aurkezpena bera*
 - *Kooperatiba aurkeztu eta herritarrak animatzeko kanpaina. Kanpaina bera.*
 - *Kooperatibaren hasierako hilabeteak*
 - o *Lehenengo egitekoak:*
 - *Hemendik eta abendura arteko plangintza zehaztu*
 - *Marka sortu*
 - *Izena + claim.a + irudia...*
 - *Marka euskarriak sortu...*
 - *Urtariletik kooperatibaren aurkezpena egin artekoa*
 - *Bilerak elkarrekin, udalarekin...*
 - *Kooperatibaren aurkezpena noiz izango den zehaztu*
 - *Horren arabera zeregin ezberdinak zehaztu*
- Zalantza: Lehenengo kooperatiba bera salduko dugu edo kooperatibarekin batera frontoiko proiektuaren berri emango da?
- Izen proposamen batzuk badauzkate, hurrengo bilerarako proposamenak ekarriko dituzte.
- 4 whatsapp talde egitea proposatzen dute: talde bakoitzeko bat eta denok egongo diren beste bat. Telegram kanalaz gain.

Juridiko administratiboa:

- Hurrengo bileran Goienerrekoek emango duten hitzaldira arte itxarongo dute kooperatiba edo elkarte izango den erabakitzeke.
- Ondoren proposamena egingo dute eta taldean erabaki beharko da.
- Kontu teknikotan aditua den jendea behar dela ere adierazi zuten.

ITXIERA

Hurrengo bileretako planifikazioa:

Faseak	Eginbeharrekoak	Iraila	2022/10/5	2022/10/19	2022/11/2	2022/11/16	2022/11/30	2022/12/14
Hasiera ematea	Prozesua abiatu							
	Formazioak ahalduntzeko							
	EBK eta prozesua + espektatibak							
Prestatzea	Energia faktura - merkatu elektrikoa - pobrezia energ + xedea - helburua							
	Kooperatiba edo elkartea + talde lanketak abiatzea							
	Energia berriztagarriak - autokontsumoa ind. edo kolektiboa + estatutuak							
	EH.ko beste esperientzia batzuk + talde lanketak							
	Eratze prozesua abiatu							
Elkarrekin sortzea	Lantaldeetako lanketak + etxeko lanak							
	...							

Hurrengo saioa azaroaren 16an, 18:30etan izango da. Kooperatiba eta elkarrearen arteko ezberdintasunak azalduko ditugu. Eta ondoren talde ezberdinetako lanketekin jarraituko dugu (talde juridikoa, komunikaziokoa eta energia taldea).